Lizarralde es consciente también que se debe ganar la credibilidad de la persona que acude con dudas “por eso hay una primera fase de información” y son muchas las anécdotas que ha vivido “para conseguir esa complicidad”.

## MUNDIALMENTE RECONOCIDO

Mikel Lizarralde es portada de la revista cuatrimestral ‘Frankfurter ring’ dedicada al bienestar y al crecimiento espiritual. De hecho, en julio, impartió en esta ciudad alemana una conferencia y tres talleres. Actualmente estudia psicología y sigue asistiendo a cursos, talleres o conferencias y acude a Montreal tres veces al año, donde además de enriquecer sus conocimientos se encarga de las presentaciones en castellano y de compartir sus capacidades.



Las nuevas tecnologías e internet hacen que la clientela de Mikel sea ya mundial. Nada más terminar la entrevista se debía conectar con el portátil con una persona en Sudamérica.

A su consulta, tanto offline como online, acuden más mujeres porque “ellas tienen la inteligencia emocional más desarrollada”. Su sala está llena de amatista “por sus propiedades de limpiar el lugar” y tiene al lado a “Amoroso, un oso al que suelen recurrir personas que han perdido a hijos muy pequeños”. “De todas formas hombres de 20 a 40 años también vienen, y muchos” concluye.

Sobre su capacidad de adivinar, Lizarralde explica que “nosotros tenemos un tercer ojo o el ojo intuitivo que se activa” e impulsa Izarpe, el instituto de las ciencias intuitivas y terapéuticas. Pero lo que tiene claro es que “si hay alguna persona con algún tipo de patología que no podemos tratar, la derivamos al profesional correspondiente”.



## 50 AÑOS DEL 'INSTI'

A comienzos de los años 60, dada la creciente demanda educativa existente en Gipuzkoa, el Ministerio planteó la creación de tres nuevos centros en Donostia, Irun y Eibar. Nuestra comarca experimentó un gran crecimiento demográfico desde 1950 y esa demanda también partió de los alcaldes del Alto Urola. Para ello diseñaron una propuesta en la que incluía el terreno y la ejecución de la obra.

La apuesta fue muy fuerte y su enclave, en Urretxu. El Ministerio pedía en propiedad un solar como mínimo de 6.000 metros cuadrados, capacidad para 600 estudiantes (separados chicos y chicas) y al menos 12 viviendas para el profesorado, pero esto último no fue posible. De ese modo para la construcción del edificio fue elegido el 'prado de Badiola' donde la empresa VICCON tenía previsto edificar viviendas, de ahí el surgimiento de lo que conocemos como 'rascacielos' dado que hubo que ampliar el volumen de viviendas para hacer hueco al 'insti'.

El Ministerio aprobó la iniciativa, el edificio se construyó gracias a la aportación de la familia Orbegozo, en noviembre de 1966, el recién construido Instituto Nacional de Enseñanza Media, actual Liceo, abrió sus clases adquiriendo en 1978 el nombre de 'José María Iparragirre'.

### El traslado

Las reformas educativas con la implantación del itinerario EGB – BUP – COU junto con el incremento

de la población en la comarca dejaron pequeño el edificio. Al principio se habilitaron barracones pero en marzo de 1977 el Ayuntamiento decidió adquirir el solar 'casero Etxaburu' para el nuevo emplazamiento del instituto. A los dos años se adjudicó la obra para acoger a 960 estudiantes y el 15 de mayo de 1983 quedó inaugurado.


### Euskera

En 1983 el Gobierno vasco dispuso la obligatoriedad de la enseñanza de las dos lenguas oficiales y se establecieron por ley los tres modelos educativos: A (castellano), B (bilingüe) y D (euskera). En el curso 1987-88 se creó el primer grupo en modelo D y progresivamente el modelo A ha ido desapareciendo siendo actualmente un centro con un itinerario íntegramente en euskera.

El centro ha seguido acoplándose a los cambios. La implantación de la LOGSE sustituyó el BUP-COU por los cursos de la ESO, de modo que el insti acogió a alumnos de 12 años, eso sí, separados de los más mayores. Pero también optó por impartir ciclos de formación profesional, creando el ciclo formativo de auxiliar de enfermería que ha llegado a formar a 300 alumnos con una alta inserción laboral.

Destacando, para finalizar, las instalaciones deportivas con las que cuenta como el nuevo gimnasio cubierto en uso desde enero de 2010.

*Información recogida del libro editado por el Instituto: 50 urte, geroa erakitzen. (Antonio Ayllón, con la colaboración de Gloria González y Miren Rodríguez). Foto: Archivo VIELUX / Pako Vierbücher*



### Ospakizun oparoa

Joxe Mari Iparragirre institutoak 50. urterruena ospatzeko programa zabala prestatu zuen: Lib-Dup grabatu, hitzaldiak, mendi irteera, omenaldiak, bazkaria, kontzertuak, argazki eta bideo lehiaketak eta 'JM Iparragirre BHI. 50 urte. Geroa Eraikitzen' izenburu duen liburuxka. Ekitaldi guzti hauek burutzeko batzorde bat sortu zutelarik.

8.000 ikasle, ehundaka irakasle eta langile, hamaika kontakizunetarako ematen du. Urretxuko Ederrena pilotalekuan egin zen bazkarian elkartu zirenek makina bat gogoratu zituzten. Institutoak mende erdia ospatzeko ikasle ohiak gonbidatu zituen antolatu ziren zazpi hitzaldietara: Karlos Linazaroso neurologoak, XXI. mendeko garuna hizpide; historian doktore, Pablo Berriotxoak, Baserria eta eskola

uztatu zituen; Eider Goiburuk, egungo matxismoa aztertu zuen eta bertan Institutoko MariQuee(N)rs egitasmoa azaldu zen, matxismoaren prebentzioa lantzen ari dena. Dani Garrido SEReko kirol kazetari ezagunak eta Gurutze Fernandez, futbolaz mintzatu ziren institutoan; Osarteneko zuzendari José Luis Lafuente eta Gipuzkoako foru aldundiko berdintasun arloko arduradun Miren Elgarresta, etorkizuneko lanbidez jardun ziren; Juanma Hurtado eta Iñigo Pérez sukaldariak bere lanbidez jardun ziren Zelai Arizti zinean eta amaitzeko, Bárbara Rivas aktorea eta Natalia Mora Gil, modan adituak institutoan izan ziren.

Ospakizun egitarauan hunkigarriena Labeaga aretoan burutu zen ekitaldia izan zen, non hainbat irakasle eta langile omendu ziren.

### ETORKIZUNA LANTZEN

Sortu zenetik, institutoak etorkizunera begira jarri izan ditu ikasleak. Hori ez da aldatu, are gehiago, erraztasunak ematen dira erabakiak hartzeko ikasleari informazioa eta orientazioa eskainiz.

Joxe Mari Iparragirre Institutoak 2017-18 ikasturtean bi arlo nagusi eskaintzen ditu: Giza eta Gizarte Zientziak batxilergoa eta Zientziak batxilergoa. Ibilbidea amaitzerakoan ikasleak erabakiko du non jarraitu bere ikastetak, Unibertsitatean edo Lanbide Heziketan.

Oso arrakastatsua izan da institutoarentzat 'Erizaintzako zaintza osagarriak, erdi mailako zikloa eskaintzea, horretarako, erizaintzako tailerra sortu zelarik. Ikasle gazteak eta helduak elkartzen dira gelan, azken hauei lanbidez aldatzeko aukera emanez.



XABIER ORMAZABAL BEKA:

# MENDIZALE GAZTEENTZAT, HAUSPOA

Xabier Ormazabal zenaren oroitzapena bizirik mantentzeko asmoz eta, bide batez, gazteen artean mendizaletasuna bultzatzeko helburuarekin, Urretxuko udalak beka bat argitaratu du, deialdia bi urtez behin egingo delarik.

Gazte mendizaleen artean, mendizaletasuna aurrera eramateko behar duen diru laguntza izatea bermatzen du Xabier Ormazabal beka. Eskaladan, alpinismoan, liburu edo gida edizioetan, ikusentzunezko edizioetan edo materialen hobetzean, 23 urtetik beherako gazte bat edo talde bakarra izango da onuraduna.

Aurkeztutako proiektuak, jatorrizkoak eta argitara eman gabeak izan beharko dira, beste lekuren batean saritu gabeak edo saritutako proiektuen

bati aldaketarik egin gabekoak izan beharko dute. Hots, ez osorik, ez atal bat, ez hitzez hitz ezta laburpena ere, lan akademiko baten tesi, tesina, ikaslan, edota txosten gisa, etab,... parte izan daitekeelarik.

Era berean, egitasmoren bat saritzerakoan kontutan izango da aktibitate horren originaltasuna, ingurumenarekiko errespetua, kalitatea eta hartutako arriskuak, azken hauek segurtasun baten barruan egon behar dutelarik.

2018ko martxoaren 31n amaituko da proiektuak aurkezteko epea, onuradunak 2.500 euro jasoko dituelarik. Ekainaren 5ean Lizeon mendi festa izeneko jardunaldia burutu zen Xabier Ormazabal beka aurkezteko.



## XABIER ORMAZABAL: ELURRETAKO LEHOINABARRA

1981ean jaioa, kirol ibilbide oparoa burutu zuen urretxuarrak. Euskal Herriko mendietatik, Pirineotara egin zuen salto, hemendik Alpeetara non ametsak lantzen hasi zen Jon Maroto eta Iñaki Álvarez lagunekin batera. Hirurak joan ziren Peruko Andeetara, Huascarán 2002 proiektuaren baitan. Gogorra bezain polita izan zen gailurra.

Hurrengo erronka: Elurretako Lehoinabarra izendatu zuten, garai batean sobietar eremuko bost mendi altuenak igotzeagatik, guztiak 7.000 metrotik gora: Comunismo (Tayikistán), Khan Tengri eta Poveda Kaukasoan, Lenin (Tayikistán eta Kirguistán artean) eta Korgenevskaya, 2002 eta 2004 urteetako udan igo zituenak. Tartean, 2003ko neguan, Aconcagua igo zuen.

2004ko irailean Himalayara abiatu zen non Shisha Pangma igotzea lortu zuen, aurreneko zortzimilakoa. Eta urrian, Cho Oyu (8.201 m.). Gailurra za-

paldu zuen baina jaitziera latza izan zen, nekeaz jota atsedena hartu nahi izan zuen eta bertan zendu zen urretxuarra. Bere lagun Gorka Quevedo kazetariak Izarren Hautsa liburua idatzi zuen Xabierren oroimena bizirik mantentze aldera.

Hori egin zuten ekainaren 3an Lizeon Mendi Festaren inguruan elkartutakoak, besteak beste, ondoko grafitiak margotu zituzten, eskalada frogak egin eta gauean Labeagan, Alex Txikonnek mendi proiektzioa eskeintzearekin batera, Xabier Ormazabal beka aurkeztu zen.





# URRETXUK %74 BIRZIKLATZEN DU

2016ko azaroaren amaieran Urretxuko udalak zabor-edukiontzi berdea kendu eta haren ordeztan txartelarekin irekitzen den edukiontzi gris itxia jarri zuen. Abenduan jaso ziren aurreneko datuak, birziklatze tasa nabarmen igo zelarik. Bosgarren edukiontzia-erekin Urretxun ia 18 puntutan igo da kopuru hori, izan ere, iaz batz bestea %46a zen birziklapen tasa.

Hortaz, Urretxun aurrerapauso handia eman da, 2017ko lau hilabeteetan berretsi dena, batz bestea, %74raino iritsiz. Halere, zertan hobetzerik badago eta Urretxun Sasiseta Mankomunitatean batz bestea baino gehiago birziklatzen bada ere, jardueran sakontzea da helburua. Hori dela eta, Urretxuko udalak etxe guztietara birziklatzeko Gida, hiztegi formatua duena, bat banatuko du zalantzak argitze aldera.

Hondakinak	Bilketa sistema	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Guztira /kg	%
Errefusa	Edukiontzi grisa	43.880	34.760	39.940	34.920	36.000	189.500	24,0
Traste zahar birziklaezinak		2.859	3.035	4.056	2.779	3.152	15.880	2,0
Beira	Iglu berdea	28.530	15.403	16.572	14.100	17.930	92.535	11,7
Papera eta kartoia	Edukiontzi urdina Kartoi komertziala	24.000 6.240	22.240 5.760	23.340 4.680	18.900 3.960	21.100 6.300	109.580 26.940	13,8 3,2
Ontzi arinak	Edukiontzi horia	19.800	18.400	21.140	19.040	21.860	100.240	12,3
Biohondakina	Edukiontzi marroia	46.760	41.590	59.400	42.380	61.820	251.950	29,7
Iñausketa eta lorazaintza		1.214	1.342	0	0	1.910	4.466	0,4
Traste zaha birziklagarriak		1.506	2.022	2.503	2.937	2.321	11.288	1,4
Arropa zaharra		2.339	1.757	2.082	2.609	3.427	12.214	1,4
Pilak		41	53	83	55	74	306	0,0
Sukaldeko olioak		200	0	520	0	150	306	0,1
		<b>177.369</b>	<b>146.361</b>	<b>174.316</b>	<b>141.680</b>	<b>176.044</b>	<b>815.770</b>	<b>100</b>
	Birziklatzera (kg.)	130.630	108.567	130.320	103.981	136.892	<b>610.389</b>	
	Zaborte-gira (kg.)	46.739	37.795	43.996	37.699	39.152	205.370	
	Birziklatzera (kg.)	<b>74 %</b>	<b>74 %</b>	<b>75 %</b>	<b>73 %</b>	<b>78 %</b>		<b>74 %</b>
	Zaborte-gira (kg.)	26 %	26 %	25 %	27 %	22 %		26 %

# ELIZALDE ETA BARRENKALEKO ZABOR GUNEAk INDARTU DIRA

Iparragirre kaleko zabor edukiontziak kendu zirenez, Elizalde eta Barrenkaleko zabor gunetara edukiontzi gris bat gehiago eraman ditu Udalak eta Iparragirre kaletik gertu beste gune bat jartzea aztertzen ari da Udala Sasieta Mankomunitatearekin batera.

Ekainaren 19tik aurrera organikoaren edukiontzia-eraren sarraila mekanikoak (edukiontzi marroia) elektronikoengatik aldatu dira. Sarraila berri hauek gaur egun "errefusaren" edukiontzi grisetan erabiltzen diren berberak dira eta txartel berarekin irekiko dira, orain artean erabilitako giltza erabilpenik gabe geldituko delarik.



# JUNE

## GARITANO

ESKIATZAILE URRETXUARRA  
JACAKO TALDEKO KIDEA DA

### “Espainiako Kopa irabazi nahi dut”

13 urte izan arren, bere hitzek eta aurpegiak islatzen dutenaren arabera, June Garitano urretxuarrak argi du eskiatzeko duen trebezian sakondu nahi duela, horretarako urtean hiru hilabeteetan zehar Jacan bizi behar badu ere.

Hori bai, ikasketei eutsiz. Ikastolan lehen eta azken hiruhilekoa burutuz eta erdikoa egiten ditu Jacako Pias izeneko ikastetxean. Distantzia ez da eragozpena berarentzat, “oso ongi” ateratzen baitu ikasgai ia guztietan eta Ikastolan emandako erraztasunak eskertzen ditu.

Elurak hartu du June bere baitan, eskiatzaile onenak eredu dituelarik. Esate baterako, Lindsey Vonn edo Mikaela Shiffrin estatubatuarak. Aurrenekoak 76 Munduko Kopako lasterketa irabazi ditu eta idatzi berri duen liburua irakurtzen ari da ingelesez, “Strong is the New Beautiful” (Indarra da orain edertasun berria). Entrenaldietan erabiltzen dituen ohiturak, elikaduren inguruko gomendioak eta eski profesionalari buruzko bestelako kontakizunak jakin nahi ditu Garitanok. Shiffrinek, berriz, 16 urte zituela irabazi zuen lehenengo aldiz Munduko Kopako

froga bat, orain arte gazteena izanik “eta honek abiadura menperatzen du, supergigante eta gigante” diziplinatan aditua baita.

### NEGUKO HILABETEETAN JACAN BIZI NAIZ BAINA IKASKETETAN EZ DU ERAGINIK

Bi eskiatzaile horien mailatik oso urruti egon arren, eredu hartu ditu eta ekainean egon arren June Garitanok finkatu du bere erronka hurrengo denboraldirako: “Espainiako Kopa irabazi nahi dut eta Andorrako Borrufa froga”. Izan ere, nahiz eta laster udan sartu, urretxuarrak aurrendenboraldiari ekingo dio orain. “Fisikoa espezifikoak lantzen ari naiz, ariketak, gimnasio lana eta San Juan egunean sei asteko egonaldia hasiko dut Alpeetan. 13 urte izan arren, bere hitzek eta aurpegiak islatzen dutenaren arabera, June Garitano urretxuarrak argi du eskiatzeko duen trebezian sakondu nahi duela, horretarako urtean hiru hilabeteetan zehar Jacan bizi behar badu ere.

Izan ere, horrelako kirol teknikoan, entrenamendua da gakoa. Eta elurretan garaiz hasia. Gurasoek Jacan etxea izateak erreztasuna eman dio Juneri, halere, iaioa izan behar da abiadura bizian jaisteko bi eski gainean edo aurrean dituzun ateei iskin egiten. Eta hala da, lau urte zituela jarri zituen eskiak lehengo aldiz, bost urterekin hamaika igandeko hiru orduko ikastaroa burutu zuen, hurrengo urtean larunbateetan ere sakonduz, ostean talde baten sartu zen, entrenatzailea aldatu eta egindako lehengo lasterketa irabazi zuen. Ikastaroak egiten jarraitu zuen, entrenatzen eta lehiatzen hasi zen, trebezia erakutsi zuenez Pirineotan gelditzeko erabakia iritsi zen duela urtebete, Jacako eski taldean.

Joseba, bera aitak argi du hori dela bidea. "Oso kirol teknikoa da eta Urretxun edo inguruan ezin du Junek entrenatu, hortaz, Jacan gelditzeko erabakia hartu genuen". Urtarriletik martxora arte izan da, pisu batean bost gazte euskaldunak elkartu dira: Eibarkoa, Gasteizkoa, Donostikoa eta Antzuolako lehengusua tartean eta denen ardurapean, Rocío laguna. "Nik 4. mailan nengoela eskatu nuen bertan gelditzea" ohartarazten digu Junek eta ez da damutu "superondo egon naiz" aitortzen du urretxuarrak. "Edozer gauza gertatuta ere bi ordutan bertan gaude eta asteburu guztietan elkartzen gara" gaineratu du Josebak. Gazteak goizean eskiatzeri heltzen dio, arratsaldean ikasketei eta asteburuetan, lehiatzeari. "Orain, alderantziz, ikasketak goizez, entrenamentuak arratsalde eta asteburuan" adierazi du Junek. Gurasoak ere gustora daude alaba horrela ikusten: "bere mailan oso ondo ikusten dugulako eta ekonomikoki jasagarria". "Ez da merkea denik esaten dugunik, baina bi gurasoak lan eginda aurre egiten diogu", horretarako ere Ocean, eguzkitako betaurrekoen eta Elan eski marken enpresen babesu duela. "Bi frogak oso ezberdinak izan

Aurten U14 (14 urte azpiko) mailan lehiatu da, bere lehenengo urtean. Espainiako Kopako hirugarrena izan zen June, Aragoiko Copa Cordillera delako frogara irabazi zuen urretxuarrak eta Madrilgo La Pinillakoa. Emaitzei erreparatuta, Slalom-a izan daiteke bere frogarik erakargarriena baina Juneri "berdin" zaio, hau da, bere aitak dion bezala "adin honetan ez da erberdintasunik ematen". Bi frogak oso ezberdinak izan



## KIROL HONETAN HOBETZEKO ENTRENAMENDUA DA GAKOA

arren, gigante edo supergiganten orduko 85 edo 90 kilometrotara jaisten dira eta konfiantza izatea ezinbestekoa da. Hemen arazoa entrainamendua da. "Candanchun eta Astun-en gigante egiteko aukera dugu eta badira estazio batzuk erraztatunak ematen dituztenak, esate baterako, Sierra Nevada pistak ireki aurretik, hiruzpalau jaitsiera egiten dituzte goizeko 7etan".

Izan ere, bizitzan bezala, adinaz gora joan ahala, zailtasunak areagotuko dira. Eski munduan U18an iritsitakoan materialak zeresan handia du eta, orduan bai, eskiak, botak eta abar asko garestitzen dira. Halere, oraindik makina bat jaitsiera burutu behar du horietako asko Luken anaiarekin, iaioa ere eskien gainean. Eta eskiatzen ez duenean atletismoa, bizikleta, gimnasia erritmikoa eta trikitixa ere gustuko ditu.



# SANTA BARBARA

URRETXUARREN IHES BIDEA

Urretxuar gehienak lasaitasunaren bila abiatzen dira Santa Barbarara, oinez, bizikletaz nahiz kotxean. Esan daiteke, udari ongietorria ematen diotela bertan San Joan egunaren bueltan.

Bertan, azken urte hauetan eskaintza areagotu da, ohiko ibilaldietarako edo umeen jolasetarako aukera egoteaz gain, jatorrean askari ezberdinak egiteaz aparte, kultur nahiz kirolean urrats bat eman du Santa Barbarak.



Era berean, ikastetxeei begira hainbat arlo jorratzen du ikasturtean, eskualdeko leku interesgarriak bisitatzuz (Aikur, Urrelur, Igartubeiti, Antio, Lenbur...) eta Santa Barbaran bertan tailerrak antolatuz (gailetak, sukaldaritzak, txontxongiloak...) edo jokuak, besteak beste, 'santatergoris' bertan asmatua edo orientazio ibilbidea.

Aste Santua oso arrakastatsua izan da aurrean, bisitari asko hartuz, bertakoak nahiz kanpokoak. Orain Santa Barbarak gogotsu helduko dio udari, eskaintza zabalduz. Ekainean bi kontzertu eskaini

dira Kalegorrian izeneko egitasmoaren baitan. Txiki baina xarmangarria, iaz jarritako oholtzak umeak, gazteak eta helduak erakartzen ditu musikaren inguruan.

Uztailak ere emango du musikarako aukera. Azpimarragarrienak, Gatazka taldearen kontzertua eta Udaleko kultura batzordeak bultzaturik uztailaren 23an David Cid Trio Jazz taldeak eskaini zuena, bakarrizketarako edo tailerrak sortzeko aukera ere izanik. Halere, erakargarriena da 550 metrotara kokatua dagoela da, udako beroetatik ihes egiteko aproposa baita. Horrela, aterpetxearen kudeaketa daraman Iñaki Lizarralde zera azpimarratzen du "udan, gauean, ez da Santa Barbara baino leku hoberik, eguna igerilekuan edo hondartzan igarota jendeak eskertzen du hemengo giroa, gaueko haize gozoa".



**Aterpetxe turistikoa**

Santa Barbarak 40 lagunentzako aterpetxea eskaintzen du bertan. "Inaziotar bidea egitea helburu duen bakarren bat agertzen zaigu, baita musika taldeak ere inguruan kontzertuak dituztelako eta bestelako turistak". "Familiak ere bai baina urrian eta azaroan gehiago" aipatu du Lizarralde.

**Jatetxea: aukera zabala**

Santa Barbararen inguruan, ze-

larian, bazkaltzeko edo afaltzeko leku aproposak emateaz gain, bertako jatetxeak bezeroenganako arreta jarriz aukera zabala eskaintzen du: pintxoak, eguneko menua 12 eurotan, kartan, plater konbinatuak eta ogitar-tekoak. Asteburuko menua 22 eurotan dago, aukera zabala emanez, "behin mendi buelta bat egin duenarentzat txorizo pintxotik hasita, kartan bazkaldu edo afaldu nahi duenarentzat". Hau guztiaren gidaritzapean



Íñaki Lizarralde, Manex Buron eta Iñigo Ormazabal.


# EL CIRCUITO DE ORIENTACIÓN LLEGA YA A IRIMO



Una de las ofertas más atractivas que ofrece Santa Barbara son los diferentes circuitos de orientación creados en su entorno. En un primer momento se crearon micro circuitos alrededor de la ermita, de aproximadamente 250 metros, dirigidos a los más pequeños. El juego consiste en orientarse a través de un mapa e ir encontrando las nueve balizas o placas dispuestas por el monte o por la campa de Santa Barbara. Cada vez que se vayan encontrando se deben apuntar el código o la matrícula correspondiente en la cartulina verde que recogerán junto con el mapa, que viene bien señalado. No obstante, Santa Barbara ha dado un paso más

y ya tiene un recorrido diseñado por Alberto Tapiz e Iñaki Casas que incluye un recorrido más amplio, alcanzando Irimo. Iñaki Lizarralde señala que "es otra forma de ir al monte, a los más pequeños se les hace muy ameno ir buscando las balizas, aunque hay gente que la de Irimo la hace en varias etapas".

En el argot, se denomina Rogaining a esta práctica, que en algunos casos está regulada como una prueba de competición en la que hay que ir cubriendo las balizas en un tiempo determinado. En octubre del año pasado se celebró la primera de ellas denominada Irimogaine por medio del Gipuzkoako Orientazio Taldea (GOT).



No obstante, en Santa Barbara ofrecen algo más lúdico. El mapa está detallado, refleja situaciones del terreno como pista, camino, senda, valla, muro, líneas eléctricas, ruinas, rocas, curvas de nivel, terraplén, surcos, hoyos, mojones, campos de cultivo, terreno abierto o con árboles dispersos, terreno privado, arroyos o pozos... y 12 balizas que hay que encontrar, de la A hasta la L.

# URRETXU.EUS

## WEB DIRIGIDA A LA PARTICIPACIÓN



La web **urretxu.eus** se presenta renovada con la intención de facilitar el acceso a la información a las diferentes áreas del Ayuntamiento y, al mismo tiempo, fomentar su uso para realizar diversos trámites a través de internet.

Con una página de inicio bastante clara, el menú despliega siete áreas municipales: Ayuntamiento, Euskera, Deportes, Cultura-Juventud, Acción Social, Sostenibilidad y Turismo y otra pestaña para facilitar diversos trámites. La pestaña "Ayuntamiento" ofrece una visión general de la organización del consistorio y del propio municipio.

Urretxu tiene mucha actividad en materias como el euskera, el deporte o la cultura y la juventud. Cada departamento tiene su desplegable y destaca la agenda en estas tres áreas. Además, un aspecto muy demandado es la información de las diferentes subvenciones.

Acción Social es un departamento que afecta a muchas personas, de modo que la web describe los servicios a todos los colectivos implicados, además de incluir noticias, agenda, subvenciones o programas como el de Ttipi etapa.


La agenda 21, los indicadores ambientales, económicos y sociales y demás información se encuentran en Sostenibilidad, Turismo engloba a lugares de interés de Urretxu, los museos, Iparragirre, fiestas y ferias, rutas, patrimonio e información sobre el albergue de Santa Barbara.

Por último, en trámites además de poder pedir una reunión con algún responsable político o técnico, se puede encontrar diversa información sobre subvenciones, mientras que la guía de trámites introduce al visitante en varias posibilidades de realizar gestiones a través de la red, para



lo cual anteriormente es necesario darse de alta en el registro electrónico.


A partir de ahí, aunque hay trámites en los que se pide la presencia in situ como a la hora de pedir la inscripción en el registro de parejas de hecho, no así para los certificados de empadronamiento o convivencia, consultas urbanísticas, solicitar la kirol txartela o subvenciones, alta en suministro o abastecimiento de agua, alegaciones a multas, búsqueda documental en la biblioteca o inscripciones a cursos, entre otros.



La web, bien nutrida de imágenes del municipio, contiene un apartado denominado 'Tu opinión cuenta' en el que la ciudadanía puede realizar una sugerencia, queja o reclamación que será estudiada y respondida. Además, en la home hay acceso superior e inferior a las redes sociales como facebook (1.096 me gusta) y twitter (458 seguidores), con mucha interacción, además de acoger un espacio para vídeos.


1

MARRAZTEKO




2

LABERINTOA



3

IRIMOTIK IKUSGAI: OSATU MENDI TONTORRAK



M\_ru\_\_ndi  
 B\_\_ki    K\_zk.tz\_    M\_iloak    \_xi\_\_ki  
 Ar\_L\_r    Domo Ataun  
 Putterri    S\_n D\_nat\_    U\_ba\_a-A\_d.a

URRETXU

ZUMARRAGA

# BADATUZ SANTA ANASTASIAK



HERRITARRAK LANEAN, FESTA EGITARAU BIKAINA OSATZEN DENON GOZAMENERAKO  
EUSKAL JAIA, ARTISAUAK, TRADIZIOAK, 11 KARROZA, 11 KUADRILA, MUSIKA DANTZA ETA EHUNKA GAZTE.

**DENOK BATERA, INDARKERI SEXISTARIK GABEKO JAIEEN ALDE.**

**EZ BETI DA EZ**

# GORA URRETXU ETA URRETXUARRAK!!!